



---

## Juan Ignacio Pérez Iglesias

Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate  
eta Berrikuntzako sailburua

*“Ikertzaileen ongizatea bermatzea  
eta aurkikuntza disruptibo gehiago  
sortzea gustatuko litzaidake”*

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia  
Argazkiak: Iñigo Uriz/©Foku

Juan Ignacio Pérez Iglesias (Salamanca, 1960) ez da berria *Elhuyar* aldizkariaren irakurleentzat, lehen ere agertu izan baita orriotan, rol desberdinetan: fisiologian aditu, unibertsitateko errektore, dibulgatzaile eta iritzi-emaile... Doktorea da Biologian eta katedraduna Fisiologian, eta Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea izan da, baita unibertsitate bereko Kultura Zientifikoko Katedraren arduraduna ere. Jakiundeko kidea ere bada, eta, aurten, Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburu izendatu dute. Azkar eta prestu erantzun dio elkarrizketa-eskaerari, eta ordulariari begiratu gabe ihardetsi die galderei, sakon eta ñabardura pertsonalekin.

### **Zerk bultzatu zaitu kargua hartzera?**

Bizitza osoa daramat mundu honetan, hiru etapa parekin. Lehen etapan ikerketan eta irakaskuntzan aritu nintzen. Gero kudeaketan EHUn, lehenik euskara-errektoreorde gisa eta jarraian errektore moduan. Eta ondoren ezagutza zientifikoa gizarteratzen, Kultura Zientifikoaren Katedran. Hortaz, lehendakariak kargu hau eskaini zidanean, iruditu zitzaidan orain arte baino erantzukizun gehiago hartzea zela. Iruditu zitzaidan ezin nuela ezetz esan.

Izan ere, esanguratsua iruditzen zait gai horiek biltzen dituen sail bat sortzea. Horrek adierazten du asmo bat, borondate bat alor honetan fokua ipintzeko. Eta nik, ekarpenen bat egitekotan, hor egin dezaket. Beste edozein sail eskaini izan balidate, ez nukeen onartuko.

### **Etapaz etapa egindako ibilbide horretan, lehenago ere eman duzu tamaina honetako pausorik, edo hau da handiena?**

Jauzi handi bat da niretzat. Orain arteko ibilbidea graduala izan da, eta hau jauzi bat da, kualitatiboki oso inportantea.

### **Erantzukizuna hartu duzunez gero, pentsatzen dut oso garbi izango dituzula helburuak.**

Bai, baina gauzak ez dira inoiz izaten zuk pentsatu bezalakoak. Lanean hasitakoan, ikusi dut ideia batzuk ez zirela guztiz zuzenak, eta, bestalde, espero ez nituen beste gauza batzuekin topo egin dut; normalean, onerako. Esaterako, lehen ez nintzen jabetzen lkerbasquek duen dimentsioaz, edo martxan dauden proiektuen tamainaz. Tamaina, ez bakarrik dirutan, baizik eta izan dezaketen garrantzi estrategikoagatik; Basque Quantum, esate baterako.

*“Badaukagu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana. Uste dut begirada bateratua behar duela”*

### **Eta hutsunerik aurkitu duzu?**

Adibidez, uste dut gizarte-zientziek eta humanitateek leku handiagoa behar dutela. Badaukagu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana, elementu asko dauzkana, baina nik uste dut zenbait alorretan —eta, batez ere, berrikuntzaren ikuspuntutik— beste koherentzia bat eman behar zaiola. Alderdi horretatik, gizarte-zientziak ere aintzat hartu behar ditugu. Adibidez, berrikuntzarako aukera handiak daude plan horretan; bereziki, enpresarekin lotuta. Esaterako, fabrikazio aurreratua azaltzen da, eta normala iruditzen zait, herri hau industrialia baita. Baina horrek ez du zertan ekarri bestelakoak albo batera uztea.

Berrikuntza sozialaz ari naiz. Hau lehendik dator kigu; 2020tik, gutxi gorabehera. Hiru trantsizio diagnostikatu ziren: trantsizio digitala, trantsizio energetiko-klimatikoa eta trantsizio soziala. Eta trantsizio soziala, neurri handi batean, lotua dago aldaketa demografikoarekin: migrazioa eta zahartzea. Ikuspuntu horretatik, gizartea desorekatuta dago. Badira horrekin zerikusia duten berrikuntza-politikak, baina ez daude berariaz lotuta beste arloetako estrategiekin. Nik uste dut gauza horiek behar dutela begirada bateratu bat.

### **Eta ez bakarrik sailaren barruko arloekin, ezta? Beste sailetako estrategiekin ere lerrokatuta egon beharko dute.**

Bai, noski. Industria aipatu dut, eta industriarekin badugu harremana gauza askotan. Baina baita Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailarekin ere. Hau da, berez guri dagokigu berrikuntzarako funtsa kudeatzea, eta horrek gure gain jartzen du berrikuntza-politiken koordinazioaren ardura; azken batean, gobernuaren politikena. Koordinazioaren ardura edukitzeak ez du esan nahi guk esan behar dugunik zer egin behar den, baina, hori bai, koherentzia bat eman behar diogu egiten denari.

### **Lehen aipatu duzu hasierako ideiak moldatu zenuela behin lanean hasita. Baina helburu nagusiak ez dira aldatu. Zeintzuk dira?**

lkerketari dagokionez, egoera nahiko ona da gure autonomia-erkidegoan. Ahalegin handia egiten ari gara: jada BPGren % 2,2 inbertitzen ari gara, apur bat gehiago. Ekoizpen zientifikoa neurrikoa da, eta ez gaude ez atzerago ez aurrerago. Hala ere, niri



gustatuko litzaidake lortzea ikerketa disruptiboa deitzen dena. Ez genioke hainbeste garrantzi eman beharko produzitzen dugun artikulu-kantitateari, izaera disruptiboa izatea bilatu beharko genuke. Kualitatiboki, jauzi horren bila joan behar dugu.

### **Zer garrantzi dauka horretan ikertzaileen ongizateak?**

Ikertzaileen ongizatea inportantea da berez, bidezkoa delako pertsona guztientzat. Hori azpimarratu nahi dut, hori zaintzea delako gobernatzen duenari dagokiona, ez gero hortik etekina ateratzea. Baina, horrez gainera, ni sinetsita nago jendea pozik baldin badago egoera hobean dagoela bere lana behar

bezala egiteko. Ez da bakarrik lan gehiago egiteko; da benetan ideia hobeak edukitzeko, sortzaileagoak izateko. Lehena ahaztu gabe, ordea, berez oinarrikoa baita. Gure programan dago; lehen momentutik mintzatu nintzen horretaz Legebiltzarrean. Eta hor, gainera, egiturazko aldaketak egin nahi ditugu. Beste eremu bateko terminoak erabiliz, prebentiboak izan beharko ginatke. Lan-giro on bat lortu beharko genuke, eta horrek zerikusia du beste zenbait gauzarekin, bai gauza materialekin, bai ez-materialekin. Hori da nik nahiko nukeena.



### **Eta unibertsitatearen arloan?**

Helburua da unibertsitateak dagokion finantziazioa izatea. Eta horrek baditu bere korapiloak. Zenbat da dagokiona? Jakin nahi dut zein den bai estatuko bai Europako unibertsitateen finantziazio-maila; hau da, ikasle bakoitzeko zenbat den gastua pribatua, zenbat publikoa. Eta jakin nahi dut horrek zelako harremana duen herri bakoitzeko errentarekin. Adierazle kuantitatiboak ez ezik, kualitatiboak ere beharko genituzke, jakiteko zein den gure testuingurua.

Erabaki beharko genuke non kokatu beharko ginatekeen, eta, hori bezain inportantea, zenbat gastatzen dugun, eta zenbat ikasleko eta zenbat biztanleko. Efizientzia bilatu beharko genuke.

### **Unibertsitateaz ari garela, zer neurritan prestatu behar ditu ikasleak lan-merkatuak?**

Ez da galdera erraza, eta erantzuna ez da bistakoa. Oso erraza da esatea, batetik, unibertsitateak ondo prestatu behar duela jendea, eta unibertsitateak irteten direnak han ikasitakoarekin lan egiteko gai izan behar dutela. Hori inork ez luke eztabaidatuko. Beste alde batetik, esaten baldin baduzu prestatu behar duela jendea bere intereseko alorrean trebakuntza bat edukitzeko eta horretaz gehiago jakiteko, hori ere ez luke inork zalantzan jarriko. Baina hemen, nik uste dut kontua dela noraino iritsi nahi duzun, bide batetik edo bestetik.

Iruditzen zait gure sistemak biak eskaini behar dituela, bi helburu eduki behar dituela, eta, gainera, modu orekatuan. Nik esango nuke ez duela bistatik galdu behar ikasleek azken finean lan egin behar

dutela eta, askotan, ikasitako horretatik bizi behar dutela. Baina horrek ez du unibertsitatea eraman behar lan-merkatuaren zerbitzuan ipintzera.

Bestalde, iruditzen zait inportantea dela kontuan hartzea zertan garen onak herri mailan eta unibertsitate mailan. Jakin behar dugu zer arlotan dugun benetan maila ona, eta hori da, nire ustez, irakatsi behar dena. Horrez gain, identifikatzen bada beste arloren bat estrategikoki garatu behar dena, erabaki bat hartu behar da.

*“Ikertzaileen ongizatea inportantea da berez, bidezkoa delako pertsona guztientzat”*

Ikasleek zer nahi duten ere kontuan hartu behar da, baina badaude titulazio batzuk oinarritzkoak, eta horiei eutsi behar zaie, baita ikasle gutxi jasotzen badituzte ere.

Unibertsitateak ezagutza sortu behar du, ezagutza landu behar du eremu guztietan. Agian ez diziplina guztietan, baina bai, behintzat, adar guztietan.

**Orain dela gutxira arte, gutxiengo batek zeukan unibertsitatean ikasteko aukera. Gaur egun, ohikoa da unibertsitatean sartzeko batxilergoaren ondotik. Zer eragin du horrek gizaratean?**

Hori oso inportantea da. Begira: nire familian, gu gara lehenengoak. Ni unibertsitate sartzu nintze-

nean, uste dut izango ginela belaunaldi bakoitzaren % 10-15, hor nonbait. Gaur egun, % 60 sartzen da unibertsitatean. Horrek sekulako aldaketa ekarri du, eta ez dakit gai garen neurtzeko zenbaterainokoa.

Beste gizarte bat daukagu. Ziur nago gizarte kritikoagoa daukagula horrexegatik, aberasgarriagoa eta exijenteagoa. Aldaketa historiko handia gertatu da, baina bi norabideetan. Unibertsitatea aldatu da hainbeste jende sartzearen ondorioz, eta gizarteak ere aldatu da.

Eta lehen unibertsitarioak ez ziren ikasketak ere sartu dira unibertsitatean, Eta Beste izaera bat eman zaie ikasketa horiei. Lehen askoz ere ukitu profesionalagoa zeukaten karrera batzuek orain oinarri akademikoa ere badaukate. Kontua ez da bakarrik gauzak nola egiten diren erakustea, baizik eta haien funtsa ere irakastea. Nik uste dut ezagutza osoagoa eta kritikoagoa dela orain, eta, alde horretatik, hobea.

**Horrekin lotuta, zuk zeuk lan handia egin duzu gizarte kritiko hori aberasteko eta sendotzeko, dibulgazioaren bidez, esaterako. Zer garrantzi du zientzia gizarteratzeak?**

Bai? Nik ez dut neure burua horrela ikusten. Agian kanpotik ikusita... [Pentsatzen geratu da] Egia da komunikabide guztietan aritu naizela kolaboratzaile, telebistan ere bai... Bueno, bai, errepasso bat emanez gero, egia da horretan aritu naizela.

Eta zenbaterainoko garrantzia duen zientzia gizarteratzeak? Bada, garrantzi handia, oso handia. Horri buruz galdetzen didatenean, nire lehenengo

erantzuna beti bera da: kulturaren iturri nagusia hezkuntza-sistema da, eskola. Telebista, irratia, Internet eta horiek baita ere, baina iturri nagusia hezkuntza arautua da. Gainera, frogatuta dago; ikerketa pila bat daude erakusten dutenak nola eragiten duen hezkuntza-sistemak gizartean.

*“Zientzia-jarduera  
sustatzen baldin bada,  
gizarteak aurrerakoia  
da, aurreratuagoa,  
demokratikoagoa eta  
kultuagoa”*

**Afganistanen, adibidez, neskek mugatuta daukate hezkuntza.**

Hori gertatzen denean, demokrazia desagertu egiten da. Bata bestearekin doa. Hau argi eduki behar dugu, askotan ahazten zaigulako.

Dibulgazioa eta abar inportanteak dira, baina gero datoz. Oinarritzak hezkuntza-sistema da. Besteak garrantzitsuak dira, goi-mailako ezagutza espazio publikoan jartzen dutelako; ikusten dena bakarrik baloratzen da.

Bestalde, kontuan hartu behar dugu agintariak, no-labait esateko, herritarren gogoen arabera hartzen dituztela erabakiak. Orduan, hor badago ziklo bat. Zer esan nahi du horrek? Ezagutza gizarteratzen denean gupril zoro bat aktibatzen dela, zeinaren



arabera, azkenean, jarduera zientifikoa sustatzen baita. Eta zientzia-jarduera sustatzen baldin bada, gizartea aurrerakoia da, aurreratuagoa, demokratikoagoa eta kultuagoa; eta, aldi berean, gehiago gizarteratzen da ezagutza eta, beraz, gehiago ikusten da.

#### **Eta nola susta daiteke?**

Lehenengo, zer dagoen jakin behar dugu. Jakin nahi dut zer egiten dugun, zer egiten den eta zelakoa den, zer falta zaigun, eta nola egiten den, eta zer

ondorio dituen. Ez da erraza jakitea. Izan ere, berehala hasiko dira esaten "baina zer audientzia dauka horrek?". Eta hori ez da kontua. Hortaz, diagnostiko bat egin behar da, eta, horren ostean, erabaki behar dugu zer lerro jarraitu behar ditugun, noraino sistematizatu eta antolatu guztia. Eta zer pizgarri behar diren beste gupil batzuk aktibatzeko.

#### **Zerbait gehitu nahi duzu? Luze aritu gara...**

Ez, ondo dago. Eta lasai, gustura aritzen naiz hizketan gai hauei buruz, ez naiz nekatzen. ●